

# **HIRIGINTZA ZERBITZUENGATIKO, OBRA LIZENTZIAGATIKO ETA BESTE ZERBITZU TEKNIKO BATZUETAKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA. 2017. URTEA**

## **I.OINARRIA ETA IZAERA**

1. artikulua.Konstituzioaren 133.2 eta 142. artikuluetan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 106. artikulua emandako ahalmenak erabiliz eta Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan edatutakoarekin bat etorriz, Udal honek hiri zerbitzuengatiko, obra baimenengatiko eta beste zerbitzu tekniko batzuetako Tasa ezartzen du. Azken hori ondorengo Zerga Ordenantzak eraenduko du eta horretara bidutako arauak aipatu Foru Arauan ezarritakoari lotzen zaizkio.

## **II.ZERGA EGITATEA**

2. artikulua.- Tasaren zerga-egitatea da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean aipatzen diren eraikuntzako egintzek eta lurzoruaren erabilerek, udalerrri barruan egingo direnek, aipatutako Legearen Hirigintzako Arauak eta gainerako indarreko xedapenak betetzen dituzten egiaztatzeko eta horietan esku hartzeko Udalaren jarduera teknikoa edo administratiboa; baita aurretiatzko komunikazioa eskatzen duten eraikuntzako egintzei eta lurzoruen erabilerei lotuta ematen diren kontrol, ondorengo egiaztatze eta ikuskapen jarduerak ere eta, oro har, hirigintzako ikuskapenarekin, kudeaketarekin eta plangintzarekin lotutako zerbitzuak eta bestelako Zerbitzu Teknikoak ematea.

3. artikulua.- Honako egintza hauei lotutako administrazio-zerbitzuak ordainaraziko dira:

1. Obra lizentziak ematea eta hirigintza pribatuko proiektuak onartzea.

2. Aurretiatzko jakinarazpen-araubidea bete behar duten lurzoru eraikitze eta erabiltzeko ekintzei dagokienez egiten den kontrol-jarduera, ondorengo egiaztapena eta ikuskapena.

3. Gaitze-titulua ematea terrazak, kanpoko barrak eta merkataritza-establezimenduen luzapenak instalatzeko.

4.- Eta oro har, ikuskapena, kudeaketa eta planteamenduarekin zerikusia duten zerbitzuak ematea, baita beste zerbitzu tekniko batzuk ematea ere.

Terrazak arautzen dituen araudi berri bat onartzen bada, tasa hau ez da eskatuko aurretik zeuden eta horretarako baimena zuten terrazak egokitu direla egiaztatzean eman behar diren baimenengatik. Horrela izango da jatorrizko lizentzian baimendutako terrazaren elementuak aldatzen ez badira.

### **III.SUBJEKTU PASIBOA**

4. artikulua. 1. Subjektu pasibo zergadunak dira, pertsona fisikoak edo juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean aipatzen dituen erakundeak, hots, eraikinak edo instalazioak egiten diren edo egiteko asmoa dagoen higiezinaren edo obrak burutzen diren edo burutzeko asmoa dagoen higiezinaren jabeak edo edukitzaileak edo errentariak, edo dagozkien zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituztenak edo zerbitzu edo jarduera horien onuradunak edo eraginpekoak direnean.

2. Zergadunaren ordezkioak izango dira obren kontratariak edo eraikitzaileak.

5. artikulua. 1. Subjektu pasiboaren zerga betebeharreari solidarioki aurre egingo die, Zergei buruzko Foru Arauaren 41 artikulua aipatzen dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek.

2.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorrearen 42. artikuluan aipatzen diren pertsona edo erakundeak arduradun subsidiarioak izango dira.

### **IV.ZERGA KUOTA**

6. artikulua. Zerga kuotaren aplikazioa ondorengo tarifen arabera burutuko da:

#### **TARIFA**

1. Obra baimenak eta Urbanizazio pribatuen proiektuak **%0,8**.

2. Alderdiren batek eskaturik, aurriaren aitorenari buruzko zenbatekoa; **0,60** euro eraikinaren m<sup>3</sup>-ko, eraikin baten aurriari buruzko espedientea hasi nahi izanez gero, eta 526,10 eurokoa izango da gutxieneko kanona.

3.- Baimen baten luzapena emateak edo antzerako administrazio egitateak betetzeke 41,40 euro.

4.- Behin behineko obrek **%0,8** sortuko dute aurkeztutako aurrekontuaren gainean .

5. Betearazpenari buruzko aginduak **%0,8** sortuko dute aurkeztutako aurrekontuaren gainean.

6. Etxebizitzak lehenengo aldiz atzemateko baimenak egingo diren eraikin berriek Udal Ordenantzek eta Hirigintza Planak ezarritako betekizunak betetzen dituztela frogatu beharko dute Udal jarduerak eta jarduera horregatik ordainduko den kuota ondorengo tarifa laukian adierazten da:

Etxebizitzen lehen okupazioko lizentzia bakoitzeko: **270,00 euro**  
Garajeen lehen okupazioko lizentzia bakoitzeko: **270,00 euro**

7.-a) Behin obra baimenaren edo administrazioaren eskuhartzearen eskaera egin eta gero, proiektua aldaraziko da, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da zerga-kuota kuantifikatzeko ondoretarako.

Baimena ematen ez bada, aurrekontu berriaren arabera jardungo da eta aurrekontu tasa likidatuaren parekoa izanez gero, ateratzen den kuotari %5eko errekargua aplikatuko zaio.

Lizentzia emateko egintza administratiboa edo horren parekoa izanez gero, eta jatorrizko aurrekontuaren arabeko tasa likidatu eta gero, zerga-kuota kalkulatu da jarraian azaltzen den moduan.

Aurrekontua aurrekoa baino beheragokoa edo parekoa bada, tasa likidatuari %10 aplikatuko zaio.

Aurrekontua jatorrizkoa baino goragokoa bada, tasa likidatuari %10 aplikatuko zaio eta lehenengo aurrekontuaren eta bigarren aurrekontuaren arteko gaindikinari %0,8 aplikatuko zaio.

Aldarazpenak eragin handia badu jatorrizko proiektuan, esaterako, bolumena, altuera edo forma aldatzen bada, edo solairuan atzematen duen azalera, eskailera eta igogailuen kokapena aldatzen bada, edo etxebizitza kopurua hazten edo gutxitzen bada, aurkeztutako aurrekontuaren tasa osorik sortuko da.

b) Behin obra bat komunikatu ondoren, beranduago hasierakoa baino aurrekontu handiagoa komunikatzen denean, zerga-kuota bigarren aurrekontuaren gaindiko kopuruaren arabera kalkulatu da.

8. Hiri-lurzatiketak: Bereizi beharreko azalera m<sup>2</sup>-ko **0,54 euro**. Gutxieneko **119,60 euro**

9. Hiri lur-zatiketak ez direnak. Ez beharrezkotasuna aitortzea **77,30 euro**

Hirigintza kalifikaziorako agiriak luzatzeagatik **33,60 euro**

10. Hirigintza baimenen titulartasuna eskualdatzeagatik **41,40 euro**

11. Lerrokadura eta sestren obretako zuinketa egiaztatzea, eraikiko den unitateko **197,10 euro**

12. Putzu beltz partikularrak kentzeko eskatzen diren lanetarako lizentziak ez dira tasa honi loturik egongo.

13. Aurretiatzko komunikazioa eskatzen duten obrekin lotuta ematen diren ondorengo kontrol edo egiaztatze jarduera administratiboengatik: aurrekontuaren gaineko %0,80.

14.- Terraza instalatzeko gaitze-titulua izapidetzeagatik: 83,90 euro

15.- Jaietan kanpoko barra instalatzeko gaitze-titulua izapidetzeagatik: 25 euro

16.- Merkataritza-establezimenduaren luzapena instalatzeko gaitze-titulua izapidetzeagatik: 25 euro

## **V.SALBUESPENAK ETA ZERGA-HOBARIAK**

7. artikulua. Tasan ez da inolako salbuespenik egingo.

A).- Ondoren aipatzen diren obrak egiteko eskatzen diren obra lizentziek edo aurkezten diren aurretiatzko komunikazioek %90eko hobaria izango dute kuotaren gainean:

1.- Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, udal titularitateko ondasunetan obrak egiteko.

2.- Arkitektura oztopoak deuseztatzeko. Halakoetan, hobaria soilik aplikatuko zaio lehendik dauden eraikin edo eraikuntzetan oztopo horiek deuseztatzeko lanen aurrekontuari, zeina berariaz bereziturik aurkeztuko baita. Hobari honen barruan jasota dagoela joko da igogailuen instalazioa, bai eta legeak aginduta berau ordezkatzeko ere. Hobari hau aplikagarria izango da obrak garatu behar dituzten eraikin edo eraikuntzaren batez besteko katastroko balioa 60.000 euro baino handiagoa ez denean.

3.- Babes publikoko etxebizitzak (sustapen pribatu edo publiko) eta tutoretzako etxebizitzak eraikitzeke.

4.- Ikatzezko edo gasoliozko galdarak kutsadura gutxiagoko beste erregai batzuk erabiltzen dituzten galdarekin eta eguzki energiako instalazioekin ordeztzeko lanek. Hobari honen aplikazioa, bero sorkuntzarako instalazioek

administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak sartuta egotearen baldintzapean dago.

B).- %80ko hobaria izango dute etxebizitza eta lokaletan fatxadak edertzeko obrak egiteko eskatzen edo aurkezten dituzten obra-lizentzietatik edo aurretiazko komunikazioetatik ateratako kuotaren gainean, nolabaiteko babesaren erakina direnean. Hobari hau aplikagarria izango da obrak garatu behar dituzten eraikin edo eraikuntzaren batez besteko katastroko balioa 60.000 euro baino handiagoa ez denean.

C).- Ondoren aipatzen diren obrak egiteko eskatzen diren obra lizentziek edo aurkezten diren aurretiazko komunikazioek %50eko hobaria izango dute kuotaren gainean:

1.- Etxebizitza eta lokaletan fatxadak edertzeko obrak egiten dituztenek.

Hobari hau aplikagarria izango da obrak garatu behar dituzten eraikin edo eraikuntzaren batez besteko katastroko balioa 60.000 euro baino handiagoa ez denean.

2.- Bere instalazioak Tabakoari buruzko Legera egokitu behar dituzten merkataritzako lokalak habilitatzeko, betiere bere katastroko balioa 75.000 euro baino handiagoa ez denean.

3.- Enpresa edo merkataritzako jardueretara zuzendutako lokalak habilitatzeko, jardueraren lehenengo urtean zehar, ezarri berriko enpresa eta merkataritzako jarduerak direnean, 75.000 euro baino gehiagoko katastroko balioa ez duten lokaletan, eta ekintzaile berriek bultzatuta Getxolan gainbegiratuta eta bere aldeko txostenaren ostean. Hobaria onuradunak eskatu beharko du. Honek, eskabidearekin batera, Ekintzaileentzako Hobariaren Inprimakian jasotako agiriak ere aurkeztuko ditu.

Obra batengatik hobari bat edo gehiago izateko eskubidea dagoenean, altuena aplikatuko zaio soilik.

Ordenantza honetan jasotako hobaria aplikatzearen ondorioetarako, eraikin baten batez besteko katastroko balioa hartzen da bertan jasotako etxebizitza edota lokalen katastroko balioen batura (garaieak eta trastelekuak izan ezik), etxebizitza kopuruaz edota kontuan hartutako lokalez zati eginda.

## **VI.SORTZAPENA**

8. artikulua. 1. Tasa sortuko da eta zerga ordaintzeko betebeharra izango da, zerga egitea osatzen duen udal jarduerari hasiera ematen zaionean. Horrela, hirigintza-baimenaren eskaera aurkezten den datan, edo aurretiazko komunikazioarena, edo dagokion espedientea hastean, hala badagokio,

emango zaio hasiera jarduera horri, subjektu pasiboak espresuki formulatuko balitu.

2. Obrak hasi edo betearazi baldin badira horiei dagokien baimenik gabe, edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu gabe, edo egindako obra baimendutakoa edo komunikatutakoa ez denean, obra horri baimena eman ahal zaion ala ez zehaztuko duen udal jarduerari ekiten zaionean sortuko da Tasa. Hala eta guztiz ere, obra horien baimenerako edo baimenik eman ezean, obra horiek errausteko espediente administratiboari hasiera eman ahal izango zaio.

3.- Zerga ordaintzeko betebeharrak, behin sortu eta gero, iraun egingo du nahiz eta eskatutako baimenik ez lortu, baimena aurkeztutako proiektua aldarazteko baldintzapean eskuratu edo baimena eskatzen duenak behin baimen hori lortu eta gero, horri uko egin edo atzera egin. Ezta, azkenean, aurretiaz komunikatutako obra egiten ez denean ere, baldin eta tasaren zerga-egitatea egin bada.

4.-Eskubideak likidatuko dira, baimenaren eskaera egiten den egunean indarrean dagoen ordenantzak ezarritakoaren arabera.

## **VIII.-KUDEAKETA**

9. artikulua.

Obra-lizentzia aurretiazko komunikazioak ordezkatzeko duen kasuetan, obra-lizentziaren eskaera eta Administrazioaren kontroleko jarduerak auto-likidazio sistema bidez kudeatuko dira; auto-likidazio hori subjektu pasiboak gauzatuko du eskaera edo komunikazio hori aurkezterako unean, Udal Administrazioak emango dion eredu ofizialaren arabera. Ondoriozko kuotaren ordainketa auto-likidazioetarako adierazitako epean eta moduan egingo da.

Aurrekoa ez beste kasuetan, Udalak likidatuko du tasa eta subjektu pasiboari jakinaraziko dio, ordaintzeko epea eta modua adieraziz.

Auto-likidazioa udal zerbitzuek egiaztatuko dute eta, beharrezkoa balitz, likidazio osagarri bat egingo litzateke.

## **IX.URRATZEAK ETA ZEHAPENAK**

10. artikulua. Zerga urratzei eta horren kalifikazio desberdinak eta kasuan kasuko urratzei dagozkien zehapenak Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 183. artikulua eta ondorengoek xedatuko dute.

## **X.AZKEN XEDAPENA**

Ordenantzaren oraingo testua Udalaren Bilkurak onartu zuen 1989ko urriaren 6an eta 1990eko azaroaren 30eo, 1991ko abenduaren 20ko , 1992ko azaroaren 27ko eta 1993ko azaroaren 26ko, 1996ko apirilaren 29ko, 1997ko urtarrilaren 31ko eta 1998ko abenduaren 18ko, 2001eko irailaren 28an, 2003ko azaroaren 28ko, 2004ko azaroaren 26ko, 2005eko azaroaren 25eko, 2006ko abenduaren 22an, 2009ko maiatzaren 29an, 2014ko apirilaren 29an, 2015eko abenduaren 23an, bilkura-akordioaren bidez aldarazi zen. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta bere argitalpenaren ondoko egunean indarrean sartuko da, momentu horretatik aurrera aplikatuta eta indarrean iraungo du bere aldarazpena edo indargabeketa erabaki arte.